

Gure delivery-eko proiektua abiatzeko, hainbat baliabide eta finantza beharko ditugu:

Fisikoak:

- **Instalazioak:** Jantoki bat behar dugu janaria prestatzeko eta entregak egiteko, jantoki hori hasieran lonja bezala bat izango da, guk geroago erreformatuko duguna. Erabiliko ditugun material guztiak kalitate handikoak izango dira eta elektrizitatea eskuratuko dugu panel solarren bidez.
- **Oinarrizko Materiala:** Jantokia, espazioa hobetzeko ekipamendua eta garraioa eskuratu behar dugu. Hasteko jantokia eginda dagoela, garraioa eskuratu beharko dugu. Hasieran gure garraioa bizikletak izango dira, bakoitza bat dugunez horiek erabiliko ditugu dirua pixka bat aurresteko. Baina denbora pasa ahala eta negozioa primeran badoa gure garraioak aldatzen joango dira, gure ideia nagusia bizikleta eletrikoak erostean dago baina beste lurralde batzuetara hedatzen bagara, motorrak erabiltzen hasiko gara. Aurrerago gure negozioa finkatuta dagoenean beste lokal bat hartuko dugu, baina hori pribatua izango da, guretzat. Lokal horretan gure lokal printzipala hobetzeko baliabideak gordeko ditugu eta pixkanaka lokal publikoan ipintzen joango gara.
- **Logistika:** Deliveriak egiteko erabiliko ditugun ibilgailuak eta sistema erakargarria. Deliveriak egiteko hasieran guk geuk egingo ditugu, bi lagun sukaldetan egongo dira bat sukaldatzen eta bestea eskariak prestatzen eta app-a begiratzen eskari berriak zeintzuk diren jakiteko. Beste bi lagunak deliveriaz arduratuko dira. Gure enpresa aurrera joaten denean pertsonala bilatuko dugu, eskariak eramateko baita sukaldatzeko ere. Erabiliko dugun app-a oso erraza erabiltzeko izango da arazoak ez edukitzeko, gainera aipatu dugun moduan gero eta eskaera gehiago egin gero eta oferta handiagoak egongo dira bezeroarentzat, baita ere puntuak akumulatuko dira eskaera bakoitzean oferta oso erakargarriak hartzeko, hala nola, platerrak deskontu handiekin edo batzuk dohainik.

Intelektualak:

- **Teknologia eta Software:** Online plataforma eta aplikazio bat izango dugu, non bezeroek eskatu dezaketen eta entregak kudeatzeko aukera izango dugun. Horretarako debora luzez diseinatuko dugu eta egunero app-a aktualizatzen joango gara, arazorik ez egoteko.
- **Marketing plana:** Estrategia argia izango dugu marka eraikitzea eta bezeroen atentzioa erakartzeko. Horretarako gure menuak erakargarriak izango dira eta zenbait iragarki egingo ditugu jendea erakartzeko
- **Sukaldaritza Euskarriak:** Janari osasuntsuak prestatzeko sukaldaritza-taldea behar dugu, horretarako hasieran guk izango gara sukaldariak eta dietetika ikasi egin duten lagun batzuekin hitz eginda gure menua diseinatu dugu. Denbora pasa ahala, menuan janari desberdinak egongo dira, barietatea egoteko eta jendea gure janariaz ez aspertzeko. Geroago gure enpresa finkatuta dagoenean suldariak bilatuko ditugu lan postu horretan jartzeko.

Giza Baliabideak:

- **Sukaldariak eta Hornitzaileak:** Sukaldariak, janari prestatzeko eta hornitzaileak behar ditugu. Esan dugun bezala hasiera batean guk geuk izango gara langile bakarrak hasiera batean diru asko irabaziko ez dugunez ezin izango dugu pertsonala kontratatu. Etorkizunean sukaldari profesionalak kontratatuko ditugu.
- **Denda Ekipamendua:** Garbitzaileak, sukaldeko tresnak eta materiala jantokia kudeatzeko arduradunak izango ditugu, denak erosita izango dira kalitate onekoak izaten eta janari bat prestatu ostean denak garbituko ditugu arazorik ez egoteko.

Finantzakoak:

- **Hasierako Investizioa:** Jantokiak, tresnak, egongela eta gainerako instalazioak antolatzeke hasierako inbertsioa egin beharko dugu.

Horretarako bi urtez dirua aurrezteko dugu lan desberdinak izaten eta diru guztia dugunean bakoitzak bere parte ipiniko du hasierako inbertsio hau egiteko.

- **Marketin eta Publizitatea:** Bezeroak erakarri eta fidelizatzeko gure zerbitzuak sustatzeko finantza xede horretarako. Gure kasuan egingo duguna iragarkiak jarri izango da. Telebistan ateratzeko ordainduko dugu horrela telebista ikusten duen jendea gutaz ideia bat hartzea lortuko dugu. Pertsona helduetara ailegatzeko egunkarietan ere beste iragarki bat jarriko dugu eta azkenik jende gaztea erakartzeko iragarkiak sare sozialetan jarriko ditugu.
- **Materiala eta Produktua Erosi:** Janariak erosi eta prestatzeko baliabideak Makro supermerkatuan hartuko ditugu gehienbat.
- **Langileen Ordaintzea:** Sukaldaritza, hornitzaileak eta entrega lanetan parte hartuko duten langileen ordaintzea kontuan izan beharko dugu, hasieran guk izango garenez arazoak ez dira sortuko irabazi egin dugunaren arabera soldata jasoko dugu. Geroago enpresa ondo joaten denean eta pertsonala bilatu egin dugunean, kontratuak egin beharko ditugu bakoitzak bere nomina izango du eta nominan ipintzen duen soldata jaso beharko du. Nominak desberdinak izango dira postuaren arabera soilik.